## ZUTIK INDARKERIA MATXISTAREN AURKA

# M7an

# IKASLE GREBA FEMINISTA

**ASKI DA!**

**GURE BURUAK BIZIRIK NAHI DITUGU!**

## MANIFESTAZIOAK 12etan

**BILBO:** Arriaga Plazan | **GASTEIZ:** Andra Mari Zuria
**DONOSTIA:** Boulevard | **IRUÑEA:** Udaletxea

ikaslesindikatua.net
libresycombativas.net

## EN PIE CONTRA LA VIOLENCIA MACHISTA

# 7M

# HUELGA ESTUDIANTIL FEMINISTA

**¡SE ACABÓ!**

**¡NOS QUEREMOS VIVAS!**

## MANIFESTACIONES 12etan

**BILBO:** Plaza Arriaga | **GASTEIZ:** Virgen Blanca
**DONOSTIA:** Boulevard | **IRUÑEA:** Ayuntamiento

ikaslesindikatua.net
libresycombativas.net

2024an 47 emakume hil dituzte bikotekideek edo bikotekide ohiek eta 9 adingabe indarkeria bikarioen biktima izan dira Estatuan (kopururik handiena 2015etik). Indarkeria matxistak eta erasotzaileen zigorgabetasunak ez dute etenik.

Egunetik egunera albisteak odoltsuagoak dira. Gisèle Pelicot-en kasuak, Frantzia "demokratiko" eta "aurreratuan", jasaten ari garem basakeria matxistaren adibide ona da. Justizia patriarkalak beste alde batera begiratzen du hiltzen gaituztenean, bortxatzen gaituztenean edo gure seme-alabak erasotzaileei entregatzera behartzen gaituztenean, Juana Rivasi bezala. Salaketak artxibatu egiten dira, biktimei arreta emateko zerbitzuak murriztu egiten dira, eta aterpetxeak eta biktimentzako zentroak itxi egiten dira.

Bitartean, eskuin muturra gure aurka dator. Mundu osoan, baita hemen ere, PP, Vox eta bere talde faxista ultra misogino horiek feminismo borrokalariaren aurka egiten dute. Ukatu egiten dute genero-indarkeria dagoela, "salaketa faltsuez" hitz egiten dute, eta diana bat jartzen digute milioika emakume eta gazteri zigorgabetasunez eraso diezaguten.

Matxirulo horiek, gure ikasgeletan ere egunero jasan behar izaten ditugunak, feminismoaren aurkako gorroto bizia sentitzen dute, argi utzi diegulako ez dugula gehiago jasango. Ez dugula onartuko eraso, umiliazio edo bazterkeri bakar bat ere ahazmenean eta erantzunik gabe geratzea; emakumeok isildu eta aitari, senarrari eta nagusiari obeditu behar genien garaiak amaitu egin direla; errespetua eta berdintasuna aldarrikatzen dugu.

Guztion artean, langileek, ikasleek, pentsiodunek eta abarrek mugimendu oso indartsua sortu dugu gure eskubideen alde egiteko. Eta historiaren atal bat idatzi ahal izan badugu hori defendatzen dugun feminismo motagatik izan da: borrokarako feminismoa, klasekoa eta antifaxista, matxismoaren gaitzaren aurka borrokatzen duena, datorren tokitik datorrela. Defendatzen dugun feminismoak ez du zerikusirik PSOE-Sumar, EAJ-PSE eta PSNren gobernuen postureoekin. Feminista al da justizia patriarkala blindatzea eta bere horretan jarrai dezan bermatzea? Edo sexu-hezkuntzako irakasgai baten beharra alde batera uztea? Ba al du feministatik ezer inposatzen dituzten soldata-arrakalek, esplotazioak, etxebizitzaren krisiak edo Palestinako genozidioa finantzatzen jarraitzeak eta banda faxisten aurka ezer ez egiteak? Ez, noski ezetz.

2023ko azaroaren 30ean erakutsi genuen mugimendu feministak goraldian jarraitzen duela Euskal Herrian. Hala ere, egun horretako aldarrikapenak ez dira oraindik lortu. Horregatik, borroka areagotu behar dugu. ELA, LAB, ESK eta STEILAS sindikatuetako eta Euskal Herriko Mugimendu Feministako zuzendaritzek jarraipena eman behar diote mobilizazio hari, eta beste greba orokor feminista bat deitu datorren martxoaren 7rako.

Ikasle Sindikatutik eta Emakume Aske eta Borrokalarietatik dei egiten diegu ikasle guztiei **martxoaren 7an, ostirala, ikasle greba feministara eta egun horretan 12:00etan kaleak manifestazio jendetsuekin betetzera.**

Gazteok borroka benetan garrantzitsu honen lehen lerroan kokatzen gara eta martxoaren 8 izugarri bat prestatuko dugu kaleak eta plazak morez betez.

47 mujeres asesinadas a manos de sus parejas o ex-parejas en el Estado Español en 2024 y 9 menores víctimas de la violencia vicaria, la cifra más alta desde 2015. La violencia machista no cesa y la impunidad con que actúan los agresores tampoco.

Cada día que pasa las noticias son más sangrantes. El caso de Gisèle Pelicot en la "democrática" y "avanzada" Francia da buen ejemplo de la barbarie machista a la que estamos sometidas. La justicia patriarcal mira para otro lado cuando nos matan, nos violan o nos obligan a entregar a nuestros hijos a maltratadores como a Juana Rivas. Las denuncias se archivan, los servicios de atención a las víctimas se recortan, los albergues y centros para víctimas se cierran.

Mientras tanto, la extrema derecha viene a por nosotras. En todo el mundo, y aquí también con el PP, Vox y sus bandas fascistas, estos ultras misóginos arremeten contra el feminismo combativo, niegan que exista la violencia de género, hablan de "denuncias falsas" y nos colocan una diana a millones de mujeres y jóvenes para que se nos agreda con impunidad.

Estos machirulos, que tenemos que aguantar todos los días también en nuestras aulas, sienten un odio visceral contra el feminismo porque les hemos dejado claro que se acabó. Que no lo soportamos más. Que ninguna agresión, humillación o desigualdad quedará en el olvido y sin respuesta. Que los tiempos en que las mujeres teníamos que callar y obedecer al padre, al marido y al patrón se terminaron. Que queremos una vida libre de violencia y miedo. Que exigimos respeto e igualdad.

Entre todas, trabajadoras, estudiantes, pensionistas…, hemos levantado un movimiento muy poderoso en defensa de nuestros derechos. Y hemos podido hacer historia por el tipo de feminismo que defendemos. Un feminismo de combate, de clase y antifascista, que lucha contra la lacra del machismo venga de donde venga. Un feminismo que defendemos millones, y que es muy diferente al postureo de los Gobiernos del PSOE-Sumar, PNV-PSE y PSN ¿Es feminista blindar la justicia patriarcal y no hacer nada por acabar con ella? ¿O ignorar la necesidad de una asignatura de educación sexual? ¿O permitir brechas salariales, desigualdad, crisis de la vivienda, seguir financiando el genocidio en Palestina y no hacer nada contra las bandas fascistas? No, claro que no.

El 30 de noviembre de 2023 demostramos que el movimiento feminista sigue en auge en Euskal Herria. Sin embargo, las reivindicaciones de ese día aún no se han logrado. Por eso debemos redoblar la ofensiva. Las direcciones del Movimiento Feminista de Euskal Herria, ELA, LAB, ESK y STEILAS deben dar continuidad a esa movilización y convocar una nueva huelga general feminista el próximo 7M.

El Sindicato de Estudiantes y Libres y Combativas llamamos a todas las y los estudiantes a la **Huelga Estudiantil Feminista el viernes 7 de marzo y a llenar las calles con manifestaciones multitudinarias a las 12h de ese día.**

Las jóvenes nos colocamos en primera línea de esta batalla en la que nos jugamos tanto, preparando un 8M para inundar de morado las calles y plazas.